

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Felix Ajuria Belar

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1924)*

Aurkibidea



Biografia



Abadiñoko Urkiola auzoko Txabola baserrian jaio zen. Aita otxandiarra zen eta ama mañariarra. Felixek urte bat zuela aita hil zitzaion, eta amarekin batera Abadiñoko abadetxera joan ziren. Ama abadearen "amadecasa" izan zen urteetan. Gerra denboran Bizkaian zehar ihesi ibili ziren, eta azkenean amaren jaiotetxera itzuli ziren. Aramaion eta Otxandion morroi lanetan jardun eta gero, hamalau urte zituenean, Arrasateko Elma lantegian hasi zen lanean Felix. Bertako galdategiko arduraduna zela hartu zuen erretiroa. Milagros Barandiaran arrasatearrarekin ezkondu zen. Hiru seme-alaba dituzte. Bai gerra denborako eta baita Arrasateko garapen industrialari buruzko hainbat kontu azaltzen ditu Felixek.

Zintak

ARR-172

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-26
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

ARR-173

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-26
- **Iraupena:** 34 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Abadiñoko eskolatik Durangoko maristetara

- **Erref:** ARR-172/002

- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Zazpi urte inguru zituela Abadiñoko eskolan hasi zen. Maisuak belarrondoko bat eman zion, eta, orduan, amak bizikleta bat erosi eta Durangoko maristetan hasi zen. 1933an 300 pezeta balio zituen G.A.C. bizikletak. Abadiñoko maisua nor zen aipatzen du. Abadiñoko eskolan bi urte eta Durangoko maristetan beste bi urte egin zituen. 11 urterekin, Gasteizko seminaria bidali zuten Felix.

2. Maisuak jo

- **Erref:** ARR-172/005
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:04:34. **Bukatu:** 00:05:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak

Laburpena:

Abadiñoko eskolako maisuari buruz hitz egiten du. Maisuak ikasleak jo egiten zituen. Maisuak baserrietako mutilei zumeak ekarrazten zizkien, eta, gero, haiek jotzen zituen mutikoak.

3. Abadeak bandera kendu errepublikazale bati

- **Erref:** ARR-172/006
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:05:01. **Bukatu:** 00:05:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Errepublika garaiko oroitzapena. Abadiñon "castellano" bakarra omen zegoen: Errepublika goraipatzen hasi zen kalean, bandera batekin. Abadeak bandera kendu eta apurtu egin zion.

4. Orejaren hil-autoa pasatzen ikusi

- **Erref:** ARR-172/007
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:05:52. **Bukatu:** 00:06:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Errepublikara garaitu oroitza. Arrasaten hil zuten Oreja politikari eta enpresaria Bizkaiko herri batean ehortzi zuten. Haren hil-autoa Abadiñotik pasatu zenean, Felix eta lagunak bide bazterrean irten ziren hura pasatzen ikustera.

5. Elizara, maristekin

- **Erref:** ARR-172/012
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:10:37. **Bukatu:** 00:11:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

9 urtetik 11 urtera bitartean Durangoko maristen eskolan ibili zen Felix. Orduko oroitza onak ditu. Ospakizun erlijiosoren bat izaten zenean, Santa Maria elizara joaten ziren ilaran. Maiatzeko loreak.

6. Monagilo eta latina

- **Erref:** ARR-172/013
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:11:43. **Bukatu:** 00:12:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Lehenengo jaunartzea egin, eta hurrengo egunean monagilo hasi zen. Mezak latinez izaten ziren. "Introituak" latinez esaten ditu.

7. Txakur handi bat, mezako

- **Erref:** ARR-172/016
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:13:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Zazpi urterekin hasi zen monagilo moduan. Abadeak mezako txakur handi bat sartzen zion libretan.

8. Bost abade Abadiñon

- **Erref:** ARR-172/018
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:13:36. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Abadiñon bost abade zeuden: don Roman, don Angel, parrokoa, don Alejandro eta don Euleriano. Apaiz bakoitzaren eginkizunak aipatzen ditu. Abade bakoitzak bere "amakasa" (serora) zuen, gazteenak izan ezik: gazteena ama eta arrebarekin joan zen.

9. Eliza bakarra eta bost abade

- **Erref:** ARR-172/020
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:14:57. **Bukatu:** 00:15:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Abadiñon eliza bakarra zegoen. Eliza baterako bost abade zeuden, eta 2.000 biztanle bizi ziren herrian. Limosnak eta hiletak, diru-iturri.

10. Primerako hiletak

- **Erref:** ARR-172/021
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:15:22. **Bukatu:** 00:17:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Primerako hiletak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Bost abadeek hartzen zuten parte hiletan. Kanpai-hotsa. Abadeen eta monagiloen jantziak. Hilotza eliza ataria uzten zen. Segundako eta tercerako hiletak.

11. Monagiloen "kaporala"

- **Erref:** ARR-172/022
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:17:16. **Bukatu:** 00:17:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Lau edo bost monagilo zeuden. Felix eliza ondoan bizi zen, eta bera zen "kaporala" (buru egiten zuena). Bataioak.

12. Segundako eta tercerako hiletak

- **Erref:** ARR-172/023

- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:17:51. **Bukatu:** 00:18:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Segundako eta tercerako hiletak nolakoak izaten ziren aipatzen du. Tercerako hiletak, pobreenak: apaiz bakarra eta kanpai-hots txikia. Klasismoa.

13. Saturraranen, gerra irten zenean

- **Erref:** ARR-172/024
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:18:32. **Bukatu:** 00:20:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

11 urterekin, Gasteizko seminarioara joan zen. 1935-1936ko ikasturtean joan zen Gasteizera, latina ikastera. Oporretan, latineko seminaristak Saturraranera bidali zituzten. Saturraran zeudela, uztailaren 18an, gerra irten zen. Handik egun batzuetara, seminarista bakoitza bere etxera bidali zuten. Felix trenez joan zen Abadiñora.

14. Pistoladun bat elizan sartu

- **Erref:** ARR-172/026
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:20:29. **Bukatu:** 00:21:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Saturrarandik Abadiñora bueltatu zenean, gerra hasita zegoen. Egun batean, meza esaten hari zirela, gizon bat sartu zen pistola batekin. Sakristian bildu zituen denak. Han parrokoak "kamelatu" zuen gizona, eta etxera eraman eta bazkaria eman zion pistoladun gizonari.

15. 22 karlista fusilatu zituen gizona

- **Erref:** ARR-172/027
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:23:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Abadiñoko elizan zeudela gizon batek pistolarekin mehatxatu eta hurrengo egunean Durango bonbardatu zuten. Gero, gizon horrek eta beste miliziano batzuek 22 karlista fusilatu zituztela kontatzen du. Gizon hori Burgosko penalean fusilatu zuten.

16. Abadiñoko Mendiola lau elorriotar fusilatu

- **Erref:** ARR-172/028
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:23:01. **Bukatu:** 00:24:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Egun batean, Elorrioko abade bat joan zen Abadiñoko abadetxera. Abade hark esan zien Elorrioko lau gizon fusilatu zituztela Abadiñoko Mendiola auzoan. Baserritar batek aurkitu zituen lurperatutako gorpuak. Gorputzak gurdian hartu eta Abadiñoko kanposantura eramane zituzten. Fusilatuetako bat Abadiñoko don Angel organistaren aita zen. Elorriko abadea, Abadiñokoa eta Felix kanposantura joan ziren. Lau gorpuak lurrian, gerritik gora biluzik zeuden. Bakoitzak lau tiro zituen. Don Angelen aitak eskaluparioa zuen. Felixi eskaluparioa kentzeko esan zioten.

17. Mateos batailoia

- **Erref:** ARR-172/030
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:25:36. **Bukatu:** 00:26:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Komunistak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denboran, Mateos batailoi komunista joan zen Abadiñora. Eliza, don Angel organistaren etxea eta Felix bizi zen abadetxea kuartel moduan hartu zituzten. Felix-eta abadetxetik botata, parrokoaren etxera joan ziren. Mateos batailoia Villarealgo frontera joan ziren gero.

18. Abadea Itsasalde batailoian kapilau

- **Erref:** ARR-172/031
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:26:24. **Bukatu:** 00:27:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Felix hazi zuen abadea oso abertzalea zen, eta gudariak bere beharra izan zezaketela pentsatuta, Itsasalde batailoian kapilau

joan zen. Abadea falta zen denboran, amarekin bakarrik gelditu zen etxean. Gauetan, herriko mutilzahar bat joaten zen beraiekin lo egitera.

19. Abadiñotik irtetzeko abisua

- **Erref:** ARR-172/032
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:27:02. **Bukatu:** 00:28:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Ama gaixo zegoenez, Mañariako bere jaiotetxera eraman zuen taxi batean. Herrian pregoia jo zuten frontea Kanpazarren zegoela, eta herritik irtetzeko abisua emanez. Herriko baserritar batzuekin Zornotzara joan zen gurdian. Durangon ez egoen argirik; herria erabat apurtuta zegoen. Zornotzan bera hazi zuen abadearen anaiaren etxean egon zen.

20. Kuartela bonbardaketa bertatik bertara bizi

- **Erref:** ARR-172/033
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:28:46. **Bukatu:** 00:29:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Zornotzan lasai ez, eta Abadiñora bueltatzea erabaki zuen. Zornotzatik Durangora tranbian joan zen. Durangotik Abadiñora oinez zihoala guardia zibilaren kuartel parean bonbardaketa izan zen. Zanga batean gorde zen Felix.

21. Zornotzatik Abadiñora bueltatu

- **Erref:** ARR-172/034
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:29:29. **Bukatu:** 00:30:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Abadiñora iritsi eta abade gaztearen etxera joan zen. Abadeak esan zion ama Mendiolako baserri batean zegoela. Antza, Mañariako baserria bonbardatu egin zuten, eta hara eraman zuten. Frontea Urkiolan zegoen.

22. Abadearekin topo egin Mendiolan

- **Erref:** ARR-172/035
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:30:45. **Bukatu:** 00:31:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Ama Mendiolako baserri batean zegoela jakin zuenean, bere bila joatea pentsatu zuen. Frontea Urkiolan baitzegoen. Mendiolara iritsi eta bera hazi zuen abadearekin egin zuen topo. Abadea teniente jantzita zegoen. Abadeak komandateari auto bat eskatu zion, eta Abadiñoko etxetik traste denak hartu eta Zornotzara eraman zituen ama-semeak.</p>

23. Abadearen iloba seminarista

- **Erref:** ARR-172/036
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:31:45. **Bukatu:** 00:32:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Abadiñotik Zornotzara joan ziren. Felix hazi zuen abadearen iloba bat seminarista zen, eta Amaiur batailoian zebilen. Villarealeko erasoaldian bakoitzak bere aldetik hanka egin eta bakarrik iritsi zen Abadiñora. Osabaren etxea itxita ikusi zuenean, Felixen bizikleta hartu eta Zornotzara joan zen.

24. Zornotzatik Bilbora ihesean

- **Erref:** ARR-172/037
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:34:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Zornotzan zeudela, frontea aurrera zetorrela ikusita Bilbora joan ziren. Bilbon amaren aldeko senide batzuen etxean egon ziren. Senideei eta etxeari buruzko azalpenak. Gosea pasatu zuten. Felix hazi zuen abadeari Deustun ipini zioten kuartela, eta arroz zaku bat eraman zien goserik pasa ez zezaten.</p>

25. Bilboko borrokaldia

- **Erref:** ARR-172/038
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:34:08. **Bukatu:** 00:35:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Bilbon zeudeneko azalpenak. Itsasalde batailoak entregatzea pentsatu zuen. Larrinagoko eta Karmeloko presoak buruzko azalpenak. Bilbon zubiak apurtu zituzten.

26. Nazionalak Bilbon sartu

- **Erref:** ARR-172/039
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:35:35. **Bukatu:** 00:37:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerra denborako kontuak. Bilbon egon ziren denborako kontuak. Begoñara bidean zuten babeslekua, eta egunero joaten ziren hara. Egun batean babeslekura zihoazela, San Anton eliza aurrean gizon bat "¡Viva España! ¡Arriba España!" ohikatzen hasi zen pistola ametralladora batekin. Artxandara bidali zituzten. Artxandan ogi zuria eman zien jateko. Handik Deriora bidali zituzten. Tankeak Deriotik Bilbo aldera joaten ikusi zituen. Derion Durangorako autobus bat hartu zuten. Durangotik Mañarira, amaren jaiotetxera, joan ziren.</p>

27. Mañarira

- **Erref:** ARR-172/040
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:37:12. **Bukatu:** 00:37:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

<p>Gerra denborako kontuak. Bilbotik Mañarira joan ziren, amaren jaiotetxera. "Gorriek" baserria hutsik utzi zuten. San Anton ermitara meza entzutera joateko txapel gorria jarri zioten Felix. Abadea ere meza esaten txapel gorriarekin.</p>

28. Abadea preso, Karmelon

- **Erref:** ARR-172/041
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:37:51. **Bukatu:** 00:38:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Mañariako baserrian miseria besterik ez zuten. Abadeak gutun bat idatzi zion Felixi Karmelon preso zegoela eta mantan bat eramateko eskatuz. Abadea bisitatzera joan zenean, Aramaioko bere jaiotxera joateko esan zion abadeak.

29. Etxanera, monagilo...

- **Erref:** ARR-172/042
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:38:49. **Bukatu:** 00:41:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Aramaion, Goiko Errota baserrian egon ziren Felix eta ama; abadearen jaiotetxean. Mezara traje eta korbatarekin joaten zen, seminarista moduan. Etxango familia batek berarekin eraman zuen Felix, auzoko ermitan monagilo lanak egiteko aitzakian, baina baserriko lanetan gehiago aritu zen. Igandetan egiten zituen monagilo lanak, eta aukera zuenean txanponen bat osten zuen. Baserrian non egiten zuen lo. Baserri horretan karlista bat egon zen ezkutatuta.

30. Etxanetik Otxandiora, amonarenera

- **Erref:** ARR-172/043
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:41:35. **Bukatu:** 00:43:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Etxanen gustora ez, eta aitaren aldeko Otxandioko senideen baserrira bidali zuen amak. Esnea batu, irak ebaki, soroko lanak... egiten zituen. Amonak mutil egin zuela dio. Baina ez zitzaion baserria gustatzen, eta amari idatzi zion handik ateratzeko eskatuz.

31. Otxandiotik Arrasatera, amarekin

- **Erref:** ARR-172/044
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:43:20. **Bukatu:** 00:44:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

Aramaion, Goiko Errota baserrian (abadearen jaiotetxean) egon ziren Felix eta ama bolada batean. Denbora hartan, Felix Landa karlista egon zen gordeta baserri horretan. Behinola, gizon hori baserrira joan zen eskerrak ematera, eta Felixen amak egoera baliatu zuen bere semearentzako lana eskatzeko. Gizonak baiezkoa eman, eta, egun batzuetara, amarekin Arrasatera joan zen Felix.

32. Zerrajeran hartu ez

- **Erref:** ARR-172/045
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:44:23. **Bukatu:** 00:45:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Behin Arrasaten, Felix Landak bidalita Zerrajerako bulegora joan zen Felix gaztea. Zerrajeran egunkari bat eman zioten irakurtzeko, baina Felixek gutxi ikusten zuen eta bistan failoa zuela ikusita ez zioten lanerako deitu.

33. 14 urterekin, Elman lanean hasi

- **Erref:** ARR-172/046
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:45:02. **Bukatu:** 00:46:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Baina Zerrajeratik deitzen ez, eta Felix Landarengana jo zuen berriz lana bilatzeko laguntza eske. 1939ko urtarrilean Elman hasi zen lanean. Elmako fundatzaileak aipatzen ditu. Moldeadore ofizioa ikasten jarri zuten.

34. Arrasatera, bizitzera

- **Erref:** ARR-172/047
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:46:52. **Bukatu:** 00:48:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Elman lanean hasi zeneko kontuak. Aramaioko Goiko Errota baserritik Arrasatera joaten zen egunero, lanera. Etxetik prestatuko bazkaria jaten zuen San Frantziskoko elizpean. Elmako langile bat Goiko Errotakoekin senide egiten zen, eta hark bazkaltzera bere etxera joateko esan zion. Gero, ama eta biak Arrasatera joan ziren bizitzera.

35. Elman, fundizioan eta moldeadore

- **Erref:** ARR-172/048
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:48:32. **Bukatu:** 00:49:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Elman lanean hasi zeneko kontuak. Egunean 3 pezeta irabazten zituen, baina nahikoa ez eta fundizioan hasi zen lanean; egunean 10 pezeta irabaziz. Gerritik gaizki ibiltzen zen, ordea, eta berriz moldeadore lanera pasatu zen.

36. Ama Asam lantegian hasi

- **Erref:** ARR-172/049
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:49:53. **Bukatu:** 00:50:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Behin Arrasaten bizi zirela, Felixen ama Industrias Asam lantegian hasi zen lanean, nikelean. Lantegia etxearen atzeko aldean zegoen. Asam lantegiko ugazabei buruzko azalpenak ematen ditu.

37. Monagilo, ezkondu arte

- **Erref:** ARR-172/050
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:50:35. **Bukatu:** 00:51:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Ama eta biak lanean zebiltzan, eta ondo bizi ziren. Elizan monagilo ibiltzen zen Felix. Luistarretan monagilo ibiltzen zen bere bihotzeko lagun Ximonekin batera, ezkondu arte. 'Acción Católica'n ere ibiltzen zen.

38. Zazpi urte nobiotan

- **Erref:** ARR-172/051
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:51:39. **Bukatu:** 00:52:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

17 urterekin nobio moduan hasi zen gaur egun bere emaztea denarekin. 24 urtera arte ibili ziren nobiotan. Soldadutzatik libratu arte ezin zuen ezkondu.

39. Parrokoak ezkontzeko agindu

- **Erref:** ARR-172/052
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:52:17. **Bukatu:** 00:53:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Felixen ama lupusarekin gaixotu, eta Eibarko klinikan egon zen. Izeba batek Bar Patri zuen Eibarren. Apaizarekin topo egin eta amak gaixo zuela esatean, apaizak ezkontzeko esan zion. Domekan "elezteixak" bota zizkion abadeak.

40. Ezkontzan zazpi lagun

- **Erref:** ARR-172/053
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:53:43. **Bukatu:** 00:54:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Amaginarrebarengana joan zen eta abadeak ezkontzeko esan ziola aipatu zion. Andregaiaren familiari buruzko azalpenak. Bera hazi zuen abadeak ezkondu zituen. Ez zuten banketerik eman. Ezkontzan zazpi lagun egon ziren.

41. Aitaren aldeko familia

- **Erref:** ARR-172/054
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:55:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Lanbideak » Etxeginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitaren aldeko familiari buruzko azalpenak ematen ditu. Familia egoera ekonomiko onean zegoen. Familiakoek hainbat taberna zituzten: Bar Patri (Eibarren), Bar Landaluze (Gasteizen), Bar Ochandiano eta Bar El Caserio. Osaba bat Arabako harrobi baten jabe ere bazen.

42. Eztei-bidaia

- **Erref:** ARR-172/055
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:55:40. **Bukatu:** 00:56:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Eztei-bidaian Donostiara, Bilbora eta Gasteizera joan ziren. Ezkontzeko dirurik ez, eta ugazabak 3.000 pezeta eman zizkion. Emazteari eszedentzia eman zioten Zerrajeran, 4.000 pezeta jaso zituen.

43. Emazteak bularra emateko baimena

- **Erref:** ARR-172/056
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:56:58. **Bukatu:** 00:57:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Emazteak eta biek egiten zuten lana. Bigarren umea eduki zuenean, emaztea goizetan eta arratsaldetan lanetik ateratzen zen umeari bularra emateko. Bizikletan egiten zuen lantegitik etxerako joan-etorria.

44. Enkargatu, Elman

- **Erref:** ARR-172/057
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:57:33. **Bukatu:** 00:58:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

28 urte zituela, enkargatu jarri zuten Elman. Eta handik hiru urtera, emazteak lana utzi zuen. Amat kooperatibaren sortzaileetako bati buruzko azalpenak ematen ditu.

45. Danok bat elkartea

- **Erref:** ARR-172/059
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:59:29. **Bukatu:** 01:01:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak

Laburpena:

<p>Danok bat Arrasateko elkarteari buruzko azalpenak ematen ditu. Soziedadeko funtzaileetako baten semearen bidez sartu ziren lagunak bazkide moduan. Flor izeneko karta jokoan ibiltzen ziren. Jauntxoak aparte egoten ziren.</p>

46. Flor karta-jokoa

- **Erref:** ARR-173/001
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Flor karta-jokoari buruzko azalpenak. "Faltie" esaten dute joko horretan. Arrasaten Felixen lagun taldea bakarrik aritzen zen joko horretan.</p>

47. Bi mutikori 'Acción Católica'ko intsignia kendu

- **Erref:** ARR-173/006
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:05:12. **Bukatu:** 00:05:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

'Acción Católica'ko mutikoek galarazia zuten neskekin dantza egitea. Felixen lagun bi Oñatiko festetara joan ziren, eta han neskekin dantza lotuan egin zutelako 'Acción Católica'ko intsignia kendu zien.

48. 'Acción Católica'

- **Erref:** ARR-173/008
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:07:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Neskekin dantza lotuan egiteagatik 'Acción Católica'ko intsignia kendu zien bi mutikori. Ez zituzten elkartetik bidali. Intsignia kentzearen esanahia. Don Jose Maria zen 'Acción Católica'ko arduraduna. Arrasateko 'Acción Católica'ko fundatzaileei buruz hitz egiten du.

49. Garizuma

- **Erref:** ARR-173/010
- **Iraupena:** 0:00:19. **Hasi:** 00:07:41. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

Garizuman, ez zen egoten musikarik. Batzuek, txirikiletan ibiltzen ziren. Dantza lotuan egitea galarazia zegoen.

50. Biderakoari "ereserki nazionala"

- **Erref:** ARR-173/011
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Dantzan ari zirela gure Jaune pasatzen bazen, bandak "ereserki nazionala" jotzen zuen, eta denak dantza egiteari utzi eta belauniko jartzen ziren.

51. Zine akaberran, eskua jasota

- **Erref:** ARR-173/012
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:08:46. **Bukatu:** 00:09:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Zine akaberran, Franco agertzen zen pantailan eta ereserkia entzuten zen. Ikusleek tente jarri eta eskuineko besoa altxatu behar zuten. Mutil batek besaulkiko heldulekua telaira bota zuen behin.

52. Francoren argazkiari txikitoa bota

- **Erref:** ARR-173/013
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:09:25. **Bukatu:** 00:10:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Santa Agedako festetan Francoren argazki bati txikito bat zion mutil batek. Kartzelan sartu zuten mutila. Kartzelatik ihes egin zuen, eta nondik nora ibili zen azaltzen du.

53. Galdutako esnea edan

- **Erref:** ARR-173/014
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:10:12. **Bukatu:** 00:10:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Elman lanean zebileneko pasadizo bat kontatzen du. Makinan lanean zebilela, berarekin mutiko bat egoten zen bere ondoan "matxoak" kolokatzen. Amak "armosua" ekarri zion Felixi, baina esnea galtuta zegoen. Esnea botatzera zihoala, mutikoak ez botatzeko esan zion. Hark edan zuen minutako esnea.</p>

54. Txerria lurpetik atera

- **Erref:** ARR-173/015
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:10:53. **Bukatu:** 00:11:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gose denborako kontakizuna. Antza, baserri batean gaixotuta hil zen txerri bat, eta lurperatu egin zuten. Gizon batek hori jakitean, txerria lurpetik atera eta etxera eraman zuen jateko.

55. Amari taloa ezkutatu

- **Erref:** ARR-173/016
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:13:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraosteko gose urteez hitz egiten du. Felixek talo bat prestatu zuen berarentzat, ama lanetik beranduago etorriko zela pentsatuta. Ustekabean, ordea, ama etxera sartzen somatu zuen, eta ikaztegiaren gorde zuen zartagina.

56. Elma lantegia

- **Erref:** ARR-173/018
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:13:55. **Bukatu:** 00:14:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Arrasateko Elma lantegian etxetresnak eta hodiak egiten zituzten. Eskuzko kafe-errotak ziren lantegiaren "fuertea".

57. Arrasateko lantegi garrantzitsuenak

- **Erref:** ARR-173/020

- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:14:54. **Bukatu:** 00:15:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

<p>Arrasateko lantegi garrantzitsuenak izendatzen ditu: Cerrajera, Elma, Metalúrgica Cerrajera, Asam, La Industrial (cucharera) eta Arzamendi, Berecibar y Cía. Zerrajeratik ateratzen ziren beste lantegietako fundatzaileak.</p>

58. Arrasateko baserriak I

- **Erref:** ARR-173/025
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:20:26. **Bukatu:** 00:23:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Arrasateko baserriak. Desagertutako baserriak.

59. Arrasateko baserriak II

- **Erref:** ARR-173/026
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:23:48. **Bukatu:** 00:27:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Arrasateko baserriak. Desagertutako baserriak.

60. San Isidroko kapera eta Santa Teresa eliza

- **Erref:** ARR-173/027
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:27:52. **Bukatu:** 00:30:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

Musakolako San Isidroko kapera nork eta nola egin zuen. Santa Teresa elizari buruzko azalpenak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-05-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com